



Mainpe

etxebizitza

Aldakerak:
Ahozkoa:



43° 11' 6"

2° 35' 30"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Andikoa bidean eginiko etxea da hau. *Marien* (**Ikus Marien**) baserriaren azpialdean kokatzen da, eta hortik datorkio izena. Ahozko forma abiapuntu hartuta, hau da, *Máin*, etxearen izena osatu da: *Mainpe*.

1981ean egindako txaleta da, oso modu sinplean antolatutakoa. Bi isurkitako teilatupean, bi pisutako etxea daukagu, atea albo batean dauka, eta leihoak neurri desberdinetakoak ditu. Fatxadak luzituta eta pintatuta daude.

toponimia

Marien (**Ikus Marien**) baserri izenaren gainean esan dugunarekin lotu behar dugu honako izen hau. *Marien* baserriaren behekaldean kokaturik dagoen etxea da Mainpekoa. Izen honetan berriztarren artean erabilitako *Máin* forma gehi kokapenari dagokion -pe elkartzen dira, Mainpe izena osatuz.